

Jean-Pierre CLARIS de FLORIAN

## ALEGIAK

### I

#### *Zaldia eta Pottoa*

Zaldi on aita batek, alhargun, seme bakarra  
Alhagia batean zuen hazten,  
Han urak, lorek, itzalak baitzuten  
Aldi batean eskaintzen behar zen ontasuna.  
Gozatu nahiegiz, adinak baitu manatzen,  
Pottoa zen egun oroz astorkiaz asean,  
Ihaloska nahi nola belar, loren erdian,  
Gurarik batere gabe mainuan,  
Edo behar gabarik atsedena.  
Gazte bakartia, auher, urinez gizen,  
Aspertu zen, ezeren eskasaz akitu,  
Berehala nardatu; aitaren gana da joaiten:  
"Ontsa sendi enizala, zion, aspaldi badu;  
Belar hau gaixtoa da, badu zerbait  
Hilgarri; trefla hau geza zait,  
Ur hau ustela da; hemen aireak biria  
Dait eritzen; hots, hemendik abia gaiten."  
"Seme, derantzu aitak, irriskutan duk bizia,  
Ordu huntan berean, bada, goazen."  
Noiz erran, noiz egin. Uzten dute herria.  
Atseginez bidari gaztea jauzika zoan.  
Agureak, ez hain alai, urratsa xuhurrago,  
Zuen alta bidatzen haurra, mendi malkarretan,  
Agor, belar gabetan, haurraren hazteko  
Balía zaitenik jeus etzenetan.  
Ethorri zen gaua: nihun ez alhagia;  
Egon ziren gabean. Biharamunekotz,  
Hasia baitzen gosea zimikoz,  
Hartu behar ukan zen hortzez elhorria.  
Lauhazkarik gabe joan zen gero bidaia;  
Bi egunen buruan urratsa berdina zuten.  
Ustez orduan ikastaldirik aski bazela,  
Aitak berriz hartzen du segeretuzko bidea,  
Hura semeak ezpaitzuen ezagutzen.  
Berriz ere phentzera baderama,  
Gauaren erditan. Dueneko gure pottoak  
Berriz aurkitzen lilitan belar apur bat,  
Hartara da jauziten: "Ha! hauk aphairu hoberena!  
Nolako belarra! zion, ezti da guri bezain!  
Aita, dukegula hoberik edirenen  
Eztut batere nik uste;  
Lekua maitagarria da, gauden hebe!  
Badea baserri hau balio luken herririk?"  
Egun argia ethorri zen hori ziolarik:

Pottoak ezagutzen utzia duen soroa,  
Ahalgerik gelditzen. Aita haren gana doa,  
Bihotz onez diola: "Haur maitea, hau ikasak:  
Sobera nahi duena laster duk aspertua;  
Zorionak behar ditik arauak".

## II

### *Bi lehoinak*

Afrikan jenderik gabeko bazterretan,  
Ekiaren orgak duenetan erretzen lurra,  
Bi gaitzeko lehoin, egarriz ezin egonean,  
Heldu ziren harroka bakoitz baten oinetara.  
Ur xirripa bat bazen han, hiltzera zoan  
Urandre zenbaiten azken indar ahula.  
Badoaz berehala bi lehoinak lasterretan  
Ur harrabots haren xurumurrura.  
Edan zezaketen elgarrekin: anaiagoak,  
Beharrak, emaiten zuten aholku zuhur hori.  
Aldiz urgulua kontra zen ari,  
Eta bakarrik irabazi zuen urguluak.  
Biek edan nahi: begia haserrez betea,  
Bakoitzak du bertzearen neurria hartzen,  
Harrotzen dutela lephoko khima luzea;  
Buztan izigarriaz sahetsak dituzte joiten,  
Hain orro bortitzetan elgarri dira jaukitzen,  
Nun bere hobi beltzen zokotara  
Inguruko tigreak baitira daldaran sartzen.  
Biek berdin indarra, kuraia berdina,  
Gudu luze hortan gainditu zuten  
Axile 'ta Hektorren errabia,  
Hartan barne zen jainkorik ezpaitzen.  
Oren bat edo biez indar et'ausiki,  
Gure jokariak, urratuak, hats-bahituak,  
Gelditzen dira bi-biak.  
Soinak odol eta zauri,  
Ezinduak, erditarano hilik,  
Ondartzan herrestan, badoaz edatera.  
Ithurria gudutaldian agorturik  
Gertatu zen. Haren ondoan hiltzen dira.

Zuen ixtoriotan, dohakabeko zoroak,  
Etsaitasun, abretsun, burgoi, erokeria  
Da oinazetan suntsitzen dautzuen bizia:  
Zuek, gizonak, zirate lehoinak,  
Zuen egunak agortu den ithurria.

### III

#### *Lapina eta basahatea*

Haur haurretik elgarrekin,  
Adixkidetasun mina,  
Basahate 'ta lapina,  
Zorionean nahi nola bizi ziren.  
Ibai bat inguruan bazuen baratze muga  
Zuen xilogunetzat lapinak hartua.  
Goiz et' arrats adixkide hoin onak,  
Hautatuz noiz ostapea,  
Noiz ibaiaren bazterra,  
Ziren bat bertzearen etxera bilduak.  
Otorduak elgarrekin, ixtorioak elgarri:  
Etzezaketan bat ederragorik aurki  
Maite zutela betikotz errepikatze baizik.  
Solasetan etzioten bertzerik.  
Guzia biena zen: atsegin, dolu, oinaze;  
Batek etzuen bertzeak urrikitzen,  
Batek min zuenean bertzeak senditzen.  
Baldin bazuten aldiz ongi baten uste,  
Bazuten aitzinetik biek asebeta.  
Zoriona hori zuten, egun lazkarri batez  
Lapinak, auhariz jinik basahatetegira,  
Eztuelarik ehor aurkitzen: khexuz hasten da  
Auhena eta deika; nehoren ihardesterik ez.  
Lapina, beldurrez gogoa tinki,  
Hara, hunara dabil itzuli milatan,  
Ihietan miha, so gainerik uretan,  
Adixkide bila hara du jauzi nahi.  
"Ondikotz! bazion, ez ote naun entzuten?  
Ihardets arreba, lagun maitea,  
Ez luza nik dutan izialdura:  
Ephe zenbait oraino, bizia dinat nik galtzen,  
Ikharan hiretzat baino hobe dinat hiltzea."  
Hitz horiek erranez, laster eta nigarretan,  
Da joaiten ur bazterrera,  
Herjaunaren gaztelura  
Dela heltzen azkenean.  
Lastiman, gure lapina  
Soropil baten erdian baita gertatzen:  
Hegaztindegia handi bat du han ikusten,  
Airean, urtegi baten gainean, xori mila.  
Kuraia sortzen adixkidantzatik:  
Burdin-saretara hurbil doa beldur gaberik,  
Bilatzen, ikusten, oi maitasuna! zoriona!  
Basahatea: oihera berehala bozkarioz!  
Arrebaren konsolatzen galdu gabe dembora  
Ari da laur zango-besoz  
Zilatu nahiz segetuko bidea  
Adixkidearen batzeko: hor lurpez doala  
Hegaztegindegian da sartzen bapatez,

Iduri gerlari bat jabetzen gaztelu batez:  
 Xoriak ohildurik metan ihesari,  
 Hura lasterrez basahateari.  
 Bidexkatik baderama lurpez, ilunbez;  
 Hura berriz emanik argira  
 Atseginez loake hiltzera.  
 Biendako zer ordua! Nolaz ezin dut erran  
 Sendi nezaken bezala!  
 Gur' adixkidek etzuten bertze beldurrik ustean;  
 Etzauden hartan. Baratzeko nagusia  
 Hegaztindegian egin herexak ikusiz,  
 Ari da zinka, lapin oro suntsituren dela.  
 "Ene zizpak! Ene zizpak!" zion haserrez.  
 Berehala hudo, zizpa,  
 Oro han dira prest-presta.  
 Oihanzainekin xaretara badoaz zakurrak,  
 Ziloak iker, miha berroak;  
 Agertzen den lapin orok aurkitzen herioa;  
 Haien arimekin dira Ixtitz bazterrak betetzen.  
 Egin zenean Cannes-ko gudua  
 Erromatar gehiago hilik etzuten.  
 Gaua da; hanbat odolek jaunaren errabia  
 Ezin agorturik, biharamunera da luzatzen  
 Sarraski laztagarria.  
 Bitartean gure lapina han zen  
 Basahatearekin ihitz-petan gorde:  
 Ikharaz, herioaren igurikan,  
 Othoitz arrebari, handik ihes egin zezan,  
 Hura aitzinean hiltzen ikusi gabe.  
 "Ehaut uzten" ihardesten zuen xoriak,  
 "Herioa bortitzago, gu berexten bagine!  
 Ha! iragaiten ahal bahitu hik urak!  
 Zergatik ez? Ago..." Basahateak han uzten du,  
 Herrestatuz ekhartzen ahate batzuek  
 Utzi duten ohatze zaharra, betetzen zalu  
 Ihiakin, bildurik zapatzen ditu hek  
 Oinez, mokoaz: untzixka bat moldatzen da,  
 Zama phizu bat dezakana jasan,  
 Ezartzen hartan estekan  
 Ihi bat, sokatzat baliatuko baita.  
 Horiek eginik, ezarria denean  
 Urean, emeki lapina xalant arinean  
 Da sartzen; uzkiaren gainean hura jarria,  
 Aitzinean ahateak  
 Hoin gauza maite-maiteak  
 Eremaiten dituelarik igerika.  
 Bazterra hunkitzen da, lurreratzen, oi atsegin!  
 Hautatzen, portutik ez hain urrun,  
 Atherbea, astiaz gutziagarri  
 Adixkide gureak, libro, zorionetan hor,  
 Are maitekiagoki baitziren bizi,  
 Nun bizia baitzuten elgarri zor.

## IV

### *Gatua eta garratoinak*

Angora gatu batek, etxekandereak  
Janari hautatuenez hazten zuena,  
Etzuen egin nahi garratoiner gerla;  
Jakinez zenbat zen ona, nagia, garratoinak  
Bazabiltzan orotan, etzuten ere zerk jena.  
Behin, bihitegi baztertu batean, bakarrik,  
Asea, gure gatua han baitzagon lo,  
Badatoz bihira garratoin batzu  
Hartu nahiz ohiko janaritik.  
Etzen angora higitzen. Orduan uste dute  
Xoroek izitzen dutela. Gatuen gutiestez  
Du multzoko mintzariak elhe.  
Metan dute baiesten esku zartez,  
Jeneral izendatzen da;  
Gaitzuru baten gainetik, hura da tribunala:  
"Adixkide suharrak, dio, mendekura guazen.  
Hemendik goiti, dugun bihi hutsez aski,  
Dagigun zin eztugula janen gaturik baizi:  
Hautak omen baitira, girade gatuz aseren."  
Hitz hortan, batuz haren gogo gerlaria,  
Gudari berri bakoitzak gatua du jaukitzen  
Bere lotik iratzarriz angora.  
Hunek, nolaz ez, haserre zuzen batean,  
Lasterrez ditu aurdikiak errhautsean  
Jeneral, elhekari, soldado.  
Bi garratoinak bakarrik zuten ihesari jo,  
Lasterrez bere garratoin-zilora baitzioten:  
"Eztadila bada bortxa  
Etsaietan nagiena;  
Ororen irabazi nahiz dena da galtzen."

## V

### *Hegazterrena, bi antzarumeak eta pirta*

Hegaztarren bat bazagon buztan-lumak errotan,  
Bertze xoriak dirdiraren miresten hari so,  
Karrankan anterume bi phutzuko  
Eskasak baizik ez ikusiz trufan:  
"Behazak, zion batek, nolako zangoa!  
Zein oin apha!, itsusiak!"  
"Eta mintzoa, hain dik pollita, zion bertzeak,  
Nun ihes-arazten baitik oraino huntza!"  
Biak errana zutenaz orduan irriz.  
Pirta bat agertu zen bapatez.  
"Jaunak, egin zuen, urrundik errex ikusten da  
Hegazterrenaren hutsa: zuekin hortan bat niz.  
Baina kantuz, oinez, nagusi zuek itsusiz,  
Eta sekulan eztukezue haren biztana."

## VI

### *Erbia, haren adixkideak eta bi basahuntzak*

Erbi bat, jitez ona,  
Adixkide ainitzen nahitan zen.  
Ainitz! erranen dautazu, bada hor zer egina;  
Bakar bat bekan da hemen.  
Uste dut, baina gur' erbiak bazuen zoro hau,  
Jakin gabez Ariztotelen arau,  
Eskolan zituen gazter zielarik:  
"Adixkideak, ez' adixkiderik."  
Nahi zuen beti zerbitzatu, gustatu.  
Lapin bat bazoana, jendetasunekin,  
Eztiki hari laster: "Gusia, zion erraiten,  
En' etzangia bazterrak xarbot ederrik badu,  
Zaugi, fagorez, etxera bazkariz."  
Ikusten zuena zandi zenbait mendian alha,  
Ondora zoakon: "Ene jaunak menturaz  
Edan behar du: mendi zona bada  
Ur ezin garbiagoa duen aintzira  
Haize den arinenak ehoiz ezpaitu zimurtu;  
Enejaunak nahi badu, lehiarekin  
Ohoretan nahi nuke bidatu."  
Aberre guzier berdin,  
Ardi, zaldi, zezen, orkatz, orein.  
Zerbitzari lehiatu, borondatez betea,  
Bakoitzatik nahi zuen egin adixkidea.  
Uste zuen maite zutela maite baitzituen.  
Egun batez, etzangian geldirik, lo zen,  
Adar soinuek zutenean iratzartu.  
Hura laster ihesari, laur zakur gubeletik,  
Ihizi-mutil batek sustatzen baititu.  
Erbi gurea horra lasterretan joanik,  
Hara jo, hunara, leku beretan itzulika,  
Handik urrunduz jauzika  
Ihiztoren uzteko; zimizta betan oldean  
Joaiten da, geditzen gero:  
Jarririk, bi besoak airean,  
Begi-beharriak guaitan, burua zut aiduru,  
Eztuenez ikusten bat adixkidetan,  
Ohartzen baita xara batzuen erdian,  
Lapin bati, betidanik anaia bat bezala  
Arthatua zuena; haren gana laster:  
"Salba nezak othoi, dio, ematak atherbea,  
Idekak ziloa, badakusak zer lanjer..."  
"Ha! zein dolu diatan!" du gostuan ihardeste  
Lapinak: "Ezin dauiat atherberik eskain,  
Ari zatak emaztea hemen orai erditzen,  
Gu bien familiek egoitza hau die bete;  
Zin-zinez nauk urrikitzen.  
Adixkidea goraintzi." Erran eta lapina

Badoa. Horra zakur ehausia,  
 Erbi gaizoak laster. Zenbait urratsetan  
 Aurkitzen du zezen bat, ehun beharrorduetan  
 Lagundu zuena; hari galdeka samurki  
 Ephe batez zakurralde dezan geldi,  
 Izituko duketela haren adarrek.  
 "Ondikotz! dio zezenak, bihotzez banegikek,  
 Ezpalitz ergietan ederrena  
 Oihan hautan bakarrik; entzuten diat deika;  
 Zorion hau gibela dadin nahirik eztukek."  
 Hitz horietan badoa. Hats-bahitua,  
 Erbiak oror othoitz: orein zahar, orkatz-nabar,  
 Adixkide segurrenek doi-doia beharria:  
 Adar-soinuen beldurra da haien baitan azkar.  
 Galdurik indar, kuraia, dohakabe gaizoa  
 Zakurretara zoan, oihanen artetik,  
 Atsedenez orkartz bi zuhazpean zaudelarik,  
 Entzunik ihiztarien mintzoa,  
 Bat da jeikitzen, abiatzen: zakur odol gosek  
 Haren ondolik laster, utzirik erbia.  
 Ihizi-mutilaren oihi, sakre, hasarrek  
 Eztezakete jeus egin; oihanetan hara  
 Ihiztaria baderama, inguru luze bat  
 Egin eta, berriz berrorat itzuli,  
 Igurikan laguna zagon lekurat,  
 Orduan berean doala haren orde zehesi,  
 Gero hunek berdin; egun guzian  
 Orkatz biek aldizkatuz abian,  
 Akitzen dute zakurralde hisitua.  
 Ihiztariak azkenik ahalgetuak  
 Etxerat itzultzera dira deliberatuak.  
 Ordukotz erretira joa da,  
 Orkatzak berriz elgarrekin. Erbia pilpiran  
 Hetara doa, diola, haien goresmenetan,  
 Adixkide hainbertzek handi zenean lanjerra  
 Nola zuten utzia. "Hortaz eniz harrituko",  
 Ihardesten orkatz batek: "Zertako  
 Adixkide hainbertze? Maite duen bat aski da."

## VII

### *Urtxintxa, zakurra eta azeria*

Urtxintx gixako bat lagun ona zen  
 Zakur danes eder baten, adixkide samurra.  
 Egun batez, bidaiatz baitzoazen,  
 Oreste 'ta Pilade bezala, jiten da gaua.  
 Oihana zen, ostaturik ez: ontsa nun etzan?  
 Ukan zuten lan. Azkenean jarri zen zakurra  
 Haritzondo zahar baten ziloan,  
 Urtxintxak gorago hartu zuen etzantza.  
 Gauerditan, ordua baita sarraskien,  
 Gauonak erranik, baitzen aspaldi

Adixkideak lo zaudela, huna nun jaun azeri  
 Zahartua, gose, zuhazpera datorren,  
 Muturra duen orduko goititu,  
 Abarrean urtxintxa ikusten baitu.  
 Jaten du begiez, ezpainak milikatuz,  
 Odol beroaz egartsu.  
 Baina nolaz urtxintxerano heldu?  
 Behar da beraz, mintzatu,  
 Ekharri jaustera. Hau izan zen hitzaldia:  
 "Adixkide, barkamendu, hartzen badut  
 Zure loaren uhertzeko ausartzia,  
 Olde debot ezin atxiki batek hartu baitaut  
 Osoan arima. Gusu gira gu,  
 Lehen gusu,  
 Zur' ama, aita zenaren arreba baitzen.  
 Gizon zuzenak, ondikotz! azken orduraten,  
 Hainbertze daut gomendatu bila dezotan iloba,  
 Utzi dautan ontasunaren erdia  
 Ukan dezan! Ethon zaiten,  
 Anaia maitea, zaugi! Gaiten besarka,  
 Bete dadin ariman sendi dutan atsegina.  
 Zu zauden leku hortarano baldin igan ahal  
 Banadi, oi! jakizu, hor nintzate."  
 Eztirad' urtxintxak ergel,  
 Ene hau biziki maltzur zen ere;  
 Ezaguturik elhe zurien emaile,  
 Eztiki baderantzu: "Hemen ezin baitut egon  
 Zu besarkatu gabe, gusu maite,  
 Jausten niz: baina hobeki gaiten elgar ezagun,  
 Aitzinera dezazutan adixkide leial hau,  
 Arthoski hazi nauen ahaidea haurzaroan,  
 Lo dago zilo hortan; jo dezazun,  
 Ezagutzak eginik zirateke loriatu."  
 Jaun azerik berehala du joiten,  
 Ustez biga janen; baina zakur leiala  
 Zuhatzetik da jalgitzen, hortzez du hatzemaiten,  
 Ithorik ederki, han uzten hila.

Baditu hunek erakaspén bi: lehenik  
 Zoriona dela behar adixkidantzan jarri,  
 Izpiritudunak, gero, ainitz aldiz errexik  
 Duela bere tresnan hartzen enganari.

\*

Les vers basques des fables sont de 15, 13, 11 et 8 syllabes, très rarement moins, rimés ou assonancés, successivement: I Le cheval et le poulain, II Les deux lions, III Le lapin et la sarcelle, IV Le chat et les rats, V Le paon, les deux oisons et le plongeon, VI Le lièvre, ses amis et les deux chevreuils, VII L'écureuil, le chien et le renard.



## *Belaxko eiherazainaren segetua*

FRANTXIX MAMAI-ek, etxera noiztenka gau-beila egitera jiten zatan xixtulari zahar batek, arno egositik edanez, errana daut joan den arratsean duela hogeit bat urte ene eihera lekuko ukana duen herriko gertakari latz ttipi bat. Gizagaizoaren ixtorioak hunki nau eta entzuna dutan bezala berriz zueri erraitera entseatuko niz.

Asma ezazue ephe batez, irakurle maiteak, usain ona darion arno untzi baten aitzinean jarririk zaudetela, eta xixtulari zahar bat zaitzuela mintzo.

Gure herria, jaun ona, ezta beti gaurregun den bezala leku hil et xaramela gabeko bat izana. Lehenago, irineriako sal-eroste handi bat egiten zen, eta hamar lekoa inguruan laboretxetako jendek hunara ekhartzen zuten ehaitera bere garia... Herrian inguruan, mendixkak haize-eiheraz estaliak ziren. Ezker eta eskun, etzen hegaliak baizik ikusten iphar-haizera daldaran leheren gainetik, arsto ttipi lerro batzu zorroz kargatuak, bidetan hara goiti eta beheiti; eta aste osoan atsegin zen gain hartan, azoten zartaren, oihalaren kraxkatzearen eta eiherazain mutilen oihuen entzutea... Igandetan eiheretara joaiten ginen, andanaka. Gain hartan, eiherazainek emaiten zaukuten moskatatik. Eiherazaintsak erreginak bezain eder ziren, bere dentelazko oihal eta urrezko gurutzekin. Nik, ene xixtua ekhartzen nuen, eta gau beltzerano soka-jantzak emaiten ziren. Eihera hek, ikusten duzu, egiten zuten gure herriko bozkarioa eta aberastasuna.

Zorigaitzez, Parisko Frantzes batzuek ukan zuten bapurreko minoteria baten jartzeko gogo, Tarazkongo bidean. Oro berri, oro eder! Jendek hartu zuten bere garian igortzeko ohidura minoteriara, eta haize eihera gaizoak lanik gabe gelditu ziren. Une batez ihardokitzera entseatu ziren, baina bapurra izan zen azkarrenik, eta, bat bertzearen ondotik, *gaixoa!* hestera bortxatuak izan ziren... Arsto ttipiak etziren gehiago jiten ikusi... Eiherazaintza ederrek urrezko gurutzeak saldu zituzten... Moskatarik ez gehiago! Soka-jantzarik ez!... Iphar-haizeak ufa zezakeen, hegaliak geldi-geldirik zauden... Gero, egun batez, herriak etxola hek guziak lurrera aurdik-arazi zituen, eta haien lekuan erein ziren mahastiak eta olibondoak.

Bizkitartean, hondamenaren erdian, eihera batek atxikia zuen eta bere mendixkan itzulikatzen jarraitzen zuen, minoteriako jaben sudurrera. Belaxko eiherazainarena zen, orai beilan hemen gauden hau bera.

Belaxko eiherazain zahar bat zen hiruretan hogeit urte hetan irinean eta bere ofizioan amorratua. Minoterien jartzeak ero bezala bilakatua zuen. Zortzi egunez, herrian zehar lasterka ikusi zen, jende guzia bere inguruan bilduz eta indar guziez oihuka Probenza pozoindatu nahi zutela minoterien irinarekin. "Etzaitzeltela hara joan, zion; gaixtagin horiek, ogi egiteko, bapurraz baliatzen dira, debruaren asmakuntza; ni aldiz iphar-haizearekin eta mendi-haizearekin ari nizalarik, Jainko onaren hatsa bera baitira..." Eta horrelako elhe eder andana bat hatzemaiten zuen eiheren laudoriotan, baina etzituen nehork entzun nahi.

Orduan, errabia gaixtoz, agurea bere eiheran hetsi zen eta bakar-bakarrik bizi izan basa-ihizi ohil bat bezala. Etzuen bere ondoan alababitxi Bibiana ere atxiki nahi ukan, hamabortz urteko haur bat, hunek, aitamak galdu eta, ezpaitzuen lurrean bere *aitatxi* baizik.

Nexkato gaixoak bizia irabazi behar ukan zuen eta nun nahi laboretxetan lan egin, uztako, zeta-har hazkuntzako ala oliba biltzetako. Eta bizkitartean iduri zuen aitatzik ontsa maite zuela, haur hura. Usu gertatzen zen bere laur lekoak oinez egiten zituela erretzeko iguzkian haren ikustera joaiteko lanean ari zen laboretxean, eta haren ondoan zelarik, oren osoak emaiten zituen hari so nigarrez...

Herrian uste zen eiherazain zaharra, Bibiana igorritz, zikoizkeriaz ari izana zela; eta etzen harendako ohoragarri nexkato ttipiaren uztea horrela laboretxez laboretxe ibilki, mutilen bortizkeria guzietako menean, eta sehigoan ezarriak diren jende gazten behargabe guzienean.

Biziki gaizki iduritzen zen ere Belaxko eiherazainaren aipameneko gizon bat, bere burua, ordu hartarano, errespetatua zuena, karriketan hara joan zadin orai egiazko bohamu bat bezala, ontuts, boneta zilo, xamarra zintzilikan... Egia da igandetan mezan sartzen ikusten ginuelarik, harendako ahalgetzen ginela, gu, zaharrak; eta Belaxkok hain ongi zuen hori senditzen nun ezpaitzen gehiago giltzainen alkira jitera menturatzen. Beti eliza gibelean zagon, ur benedikatu untziaren ondoan, behardunekin.

Bazen Belaxko eiherazainaren bizian argi etzen zerbait. Aspaldian nehork, herrian, etzaukon garirik ekhartzen, eta bizkitartean haren eiheraren hegalak ari ziren beti lehen bezala... Arratsean, bidetan zehar aurkitzen zen eiherazain zaharra arstoa aitzinean zeramala irin zorro handi batzuek kargaturik.

“Bezpera onak, Belaxko! oiuhu egiten zuten laborariek; badoa beraz beti, eiherazaingoa?”

- Beti, haurrak, ihardesten zuen agureak itxura bizkor batekin. Jainkoari esker, eztugu lana eskas.”

Orduan, hoinbertze lan nundik debru zuen galdegiten zizakonean, erhi bat ezpainen ezartzen zuen eta ihardesten larriki: “Ixo! erresumatik kampoko ari niz...” Nehoiz etzen gehiagokorik jakin ahal izan.

Eiheran sudurraren sartzera joaitea, etzen gogoari eman ere behar. Bibiana ttipia ere etzen han sartzen...

Norbait atzinetik iragaiten zenean, athea beti hetsia ikusten zen, hegal lodiak beti ibilki, arsto zaharra zabalzako belarrean alhan, eta gatu handi mehar bat iguzkitara leiho bazterrean, begi gaixto batekin zuri beha.

Horrek guziak bazuen mixterio usain bat eta jendea ainitz mintza-arazten. Bakoitzak bere moldera argitzen zuen Belaxko eiherazainaren segetua, baina orotako omena zen bazela eihera hartan irin zorro bezainbat urre zorro.

Ororen buruan guzia agerian jarri zen; huna nola.

Ene xixtuarekin gazteria jantza-arazten nuen egun batez, ohartu nintzan ene semetarik zaharrena eta Bibiana ttipia elgarretaz amatuak zirela. Enintzan azkenean gaitzitu, Belaxkoren izenak oro har gutartean ohorea baitzuen, eta Bibiana xoriño pollit hura atsegin izanen baitzizatan etxean troxtan. Bakarrik, gure maitariek baitzuten elgarrekin izaiteko aldia usu, nahi ukan nuen, zer gerta ere, gauza berehala erregelatzen ezarri, eta eiherara igan nintzan aitatxiari hortaz bi hitzen erraitera... Ai! sorgin zaharra! nola hartu ninduen jakin behar da! Athea ezin idek-araz. Ene arrazoinak argitu nauzkon ahal bezala zerrapoaren zilotik; eta mintzatu nindakon ephe guzian, han zen gatu mehar gaixto hura ene buruaren gainean debru bat bezala phufaka.

Gizon zaharrak etzautan bururatzeko astirik utzi, eta biziki moldegaizki oiuhu egin zautan ene xixtura itzul nindadin, nexka bila joan nindaitekeela minoteriara... Gogoari emazu odola burura igaiten zizatala hitz gaitz horien entzutean; baina ukan nuen hala ere neure baitan egoiteko zuhurtzia aski, eta ero zahar hura bere errota-harrian utzirik, itzuli nintzan ene haurrer nahigabe horren erraitera... Gaixoek ezin sinets zezaketen; biak elgarrekin eiherarano igaiteko baimena eskatu zautaten, aitatxiari mintzatzeko, eta brix! horra maitariak abiatuak.

Hara heltzen ari zirenean xuxen-xuxena, Belaxko eiherazaina jalgi berria zen. Athea bi gako itzuliekin hetsia zen; baina gizagaizo zaharrak, atheratzean, zurubia kampan utzia zuen, eta leihotik sartzea gogoratu zizaien berehala haurrer, eihera aipatu hortan zer zen apur bat ikustera...

Gauza bitxia! eihera-harriko gambara hutsa zen... Ez zorro bat, ez gari bihi bat; murruetan ez amiamarro saretan den gutieneko irinik... Etzen sendi ere eiherak usainontzen dituen bihi lehertuaren usain on bero hura... Ardatza errhautsez estalia zen, eta gatu handi meharra haren gainean lo zagon.

Behereko barneak miseria eta utziaren itxura bera zuen: ohe gaixto bat, philda batzu, ogi mutur bat mailaldeko taula batean, eta gero zoko batean hirurzpalaurre zorro urratuak hetarik baitzarioten legarrek eta lur zuri batek.

Hori zen Belaxko eiherazainaren segetua! Igelsueria hori zen arratsean bidez bide zeramana, eiheraren ohorearen salbatzeko eta han irina egiten zela sinets-arazteko... Gaizo eihera! Gaizo Belaxko! Aspaldidanik minoteriek bere azken egitekoa ekhendua zaukoten. Hegalak itzulikatzen ziren beti, baina eihera-harria hutsik zabilan.

Haurrak itzuli ziren nigarretan, zer ikusia zuten eni erraitera. Bihotza erdiratua ukan nuen haien entzutean... Minuta bat galdu gabe, auzoengana laster egin nuen, haier bi hitzez gauzaren erraitera, eta elgarrekin deliberatu ginuen, ordu berean, etxetan zen gari guziaren eremaitera Belaskoren eiherara... Noiz errana, noiz egina. Herri guzia bidean abiatzen da, eta gain hartara heltzen gira gariz kargatu arsto lerro batekin -, egiazko garia, hori!

Eihera zabal-zabala idekia zen... Athe aitzinean, Belaxko eiherazaina, igelsu zorro baten gainean jarririk, nigarretan zen, burua eskuetan. Ohartu berria zen, etxeratzean, hura han etzelarik etxera sartuak zizazkola eta haren segetu trixtea jakina zela.

“Ai ene! zion. Orai hiltzea aski dut... Eihera desohoratua da.”

Eta arimaren urratzeko hipetan ari zen, eihera izen mota guzietan deituz, hari egiazko jende bati bezala mintzatuz.

Ordu hartan, arstoak zabalzara heltzen dira, eta hasten gira guziak eiherazainen aro ederrean bezala oihu ontsa azkar batzuetan:

“Ai! ai! ai! eihera!... Ai! ai! ai! Belaxko eiherazaina!”

Eta horra zorroak athe aitzinean metatzen eta bihi gorrailek ederra lurrera ixurtzen, alde orotan...

Belaxko eiherazainak begi handi batzu idekitzen zituen. Garitik bere esku zaharreko ahurrean hartua zuen eta bazion; aldi berean irriz eta nigarrez:

“Garia da!... Jaun Jainkoa!... Gari ona! Beha dezotan utz nezazue.”

Gero gure aldera itzuliz:

“Ha! banakien bada berriz nitara itzuliko zinezela... Minoteriako horiek denak ohoin batzu dira.”

Nahi ginuen ospez herrira ereman:

“Ez, ez, haurrak; lehen lehenik joan behar dut alhan eiheraren ezartzera... Gogoari emazue bada, badu hain aspaldi eztuela ahamenik ukana!”

Eta orok nigarrak begian ginituen ikusiz agure gaizoa eskun eta ezker ibilki, zorroen urratzen, eihera-harriaren begiratzen, bihia lehertzen ari zen bitartean eta gari errhauts arina goiti airatzen.

Hori gure alde eman behar dena da: egun hartarik, nehoiz ezkinuen eiherazain zaharra lan eskasean utzi. Gero goiz batez, Belaxko eiherazaina hil zen, eta gure azken eiheraren hegala itzulikatzetik gelditu ziren, betikotz aldi hartan... Belaxko hila, nehork etzuen ondorioa hartu. Zer nahi duzu, jauna!... oro bururatzen da mundu huntan, eta uste ukan behar da haize-eiheren aroa joana dela, Rhodanoako zaldi-xalantena, bilzarrena eta lili handiekilako soinekoena bezala.